

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

346/2021 Foru Dekretua, azaroaren 23koa, Diputatu Nagusiarena. Honen bidez, Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatua gaixotasunagatik ordezkatzeko kasua arautzen da, eta diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretua aldatzen da, zeinaren bidez izendatzen baitira Arabako Foru Aldundiaren foru diputatuak 2019-2023 legegintzaldirako

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 19. artikulua arabera, diputatu nagusiari dagokio foru diputatuak izendatu eta kargutik kentzea, haien artean diputatu nagusiorde bat edo batzuk izendatzea, haren ordez jardun dezaten, absentzia, gaixotasun, bateraezintasun, abstentzio edo errekusazio, ezintasun edo aldi baterako ezintasun kasuetan.

Halaber, foru arau horren 52. artikuluan aurreikusten denez, Foru Aldundiaren eta Batzar Nagusien arteko ohiko harremana Bozeramaileen Batzarrean Aldundia ordezkatzeko izendatzen den diputatu nagusiaren edo foru diputatuaren bitartez bideratuko da.

Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuaren bidez, zeinaren bidez izendatzen baitira Arabako Foru Aldundiaren foru diputatuak 2019-2023 legegintzaldirako, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko titular María Pilar García de Salazar Olano izendatu zen lehen diputatu nagusiorde, eta hura bera izendatu zen Aldundiaren ordezkeri Batzar Nagusietako Bozeramaileen Batzarrean, diputatu nagusia bertaratu ezin denean.

Aipatutako foru dekretuak ezartzen du, halaber, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko titularra Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularrak ordeztuko duela, behin-behinean bere eginkizunak betetzen ari denean, lehenengoaren absentzia, gaixotasun, aldi baterako ezintasun, abstentzio edo errekusazio kasuetan.

Administrazio eraginkortasunaren arrazoiengatik eta administrazio jarduera geratu ez dadin, komenigarritzat jo da, lehen diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatua ez dagoenez, hari esleitutako eskumenak ematea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularrari, harik eta hura lanpostura itzultzen den arte.

Haiengatik, diputatu nagusi bezala dagozkidan ahalmenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko titularra Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularrak ordeztu dezala erabakitzea, harik eta hura lanpostura itzultzen den arte, bat etorri diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuarekin, zeinaren bidez izendatzen baitira Arabako Foru Aldundiaren foru diputatuak 2019-2023 legegintzaldirako.

Bigarrena. Arabako Foru Aldundiaren foru diputatuak 2019-2023 legegintzaldirako izendatzen dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuaren bigarren apartatua aldatzea. Hona hemen nola idatzita geratuko den:

“Bigarrena. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatu María Itziar Gonzalo de Zuazo lehen diputatu nagusiorde izendatzea, eta bigarren diputatu nagusiorde Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatu Cristina González Calvar.

Hirugarrena. Arabako Foru Aldundiaren foru diputatuak 2019-2023 legegintzaldirako izendatzen dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuaren seigarren apartatua aldatzea. Hona hemen nola idatzita geratuko den:

“Seigarrena. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatu María Itziar Gonzalo de Zuazo izendatzea Aldundiaren ordezkari Batzar Nagusietako Bozeramaileen Batzarrean, diputatu nagusia bertaratu ezin denean”

Laugarrena. Foru dekretu honek onetsi eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Bosgarrena. Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE